

AIPUA: “HALTZAK BADU BIHOTZIK”

Iñaki Mendiguren

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 2 (1992), p. 427-430
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Tratu handirik izan ez badut ere, aspalditik dut Iñaki Mendigurenen aditzera. Anekdotak moduan serbi baleza, bihoa honako hau: behin batean, geografiaren garrantziari buruz eman zigun hitzaldia. Egia esatez gero, erdi harrituta baina denbora probetxu onean erabili nuen sentsazioarekin etxeratu nintzen.

Goierritarra dugu Iñaki Mendiguren. Ezkion jaio zen 1954. urtean. Harrigarri samarra bada ere, protestante ebanjelikoa da erlijioz. Irakaskuntza izan da bere mundua. Horrez gain, itzulpengintzan buru-belarri sarturik dabil gaur egun. Besteak beste, "Biblia Elkarte Batua"ko partaidea da. Bera da, Olaizolarekin batera, "Elizen Arteko Biblia"ren itzulpen taldeko protestanteen ordezkarietako bat.

Elkar Argitaletxean 2. edizioan publikaturiko aleetako bat da eskuartean dudana. 19 X 12 ko formatuan emaniko 103 orrialde ditu nobela honek. Hasiera honen amaieran, azkenik, esan dezadan 1989ko CAFE RUÑA-BASQUE VII. Saria elaberri honek írabazi zuela.

Estrain-estraina, titulua bera komentatzen hasiko gara. "Bereterretxeren kanthoria"ko sinbolo esanguratsua hartzen du izenburua moldatzeko. Baina esaldi herrikoiar buelta osoa emanez: "haltzak badu bihotzik". Jorratuko duen gaiak tabu izateari utzi diezaion eta arrunt bilaka dadin saiatzen da gogotik gure idazlea.

Maitasuna, erotismoa, zeloak, dibortzioa, herri borroka, soldaduskaren kontrako jarrera eta arlo soziala guztiz betaro ikuitzen duten beste arazo batzuk ere astintzen dira nobela moderno horretan zehar.

Ez da nolanhiko maitasuna, bi gizasemeren artean ematen dena baizik. Maisua eta ikaslearen arteko harremanek ez gintuzkete harritu behar, hori nahiko arrunta baita literaturan, bai, ordea, hauek bi gizonezkoren artean portunutzen baldin badira. Homosexualitatearen tabua hautsi eta arazoa hain gordin eta naturalki tratatzean, gizarteko itxura gordetze, eredu tradizional, molde zahar eta ortodoxia guztiak zabu eta itzulipurdika jartzen ditu Iñaki Mendigurenek.

Maisu koittadua gorputz lerdin eta liraineko mutil futbolari batez maitemintzen da. Amodiak dituen zoko galdu eta gailur garaienetako gazi-geza guztiak dastatzen dituzte. Iheslariak gordetzen direneko etxea konpartitzearen, komisaldegia bisitatu beharrean aurkitzen da mutil gaztea. Gogor kuestionatzen den soldaduskaren garratzasunak eramango du mutila beste mundura.

Oso pertsonaia gutxiren inguruan moldaturiko nobela da. Irakaslea eta ikaslea dira protagonistarik printzipalenak. Mutilaren ama dibortziatuak osatzen du hirugarrena. Iheslari, polizia, militar, mutilaren osaba, aita eta ikaslagunek eranskin moduan funtzionatzen dute. Puzlea osatuko bada, beharrezkoak; baina horixe besterik ez.

Elaberriak bi zati nagusi ditu. Lehen partea, liburuaren erdia, gutxi gorabehera trama nagusia edo tratatzen duena, hau da, sexu bereko bi lagunen arteko amodioa eta desenfrenoa. Bigarrena, eranskin moduan funtzionatzen duten gaineratiko eszenak: herrimina, iheslariak, soldaduska, dibortzio kontuak eta beste guzti hori.

Oso nobela idealista eta pretentsio pedagogiko dextentekoa, nire ustez. Euskaraz eman den lanik atrebituenatakoa ere bai, seguru asko. Amak bere seme homosexualaren kasua erraz konprenitzen du. Oraindik ere hori ez da gure artean gertatzen den normalen eta ohizkoena. Gauzak asko idealizatzen dira. Dibortzio kontuan ere beste horrenbeste. Gaurko errealitatearen superazio direneko zantzu asko dago liburuan barrena. Sexuaren indarra eta sentsualitatea lehen planoan ageri dira etengabe. Homosexualitatearen barnean harreman heterosexualak ere agertzen dira inoiz.

Intriga da beste ezaugarrietako bat. Ikaslea gizonezkoa dela konturatu aurretik dexente aurrera jo behar du irakurleak. Hain ezti eta sarkor markatzen ditu amodioaren bideak, non oharkabean identifikatzen zaren pertsonaiekin; eta gizonezko artean zabiltzala jabetutakoa ere ez zara sorpresaz gorritzen. Sareetan harrapatua zauzka ordurako eta ez dizu normalean emango lizukeen higuin sentsazio eta defentsiban jartzeko keinurik probokatzen. Izan ere, halaxe kontatua dago dena!

Eta zer esan Mendigurenen estilo eta idazkeraren gainean? Oso zorrotza eta sarkorra da bere estiloa. Ez zaitu esaldi luzeetan traba eraziko. Beti hitz juxtua eta egokia erabiliko ditu. Gramatika aldetik ez dut zuzenagorik asko ikusi. Nekez aurkituko duzu akatsik haren sintaxian. Oreka handia hitzegian. Aditzaren erabilera ikusgarria da. Elipsiarekin ere dotore jokatzen du. Bikain konbinatzen ditu Ezkion bazkatua eta gero hortik zehar aberastua. Ez da falta, aldian aldian, testua erruz edertzen duen metaforarik ere: "Nire ortzean hodeizat edo zeru gris monotonoak ageri ziren..."

Bukatzeko, liburuan zehar han-hemenka aurkitu ditudan asamolde eta espresio batzu gogora erazi nahi nituzke: "Antzu, usteltzeaz zegoen haziak ireki eta kimu berrian eman zuen". "... Bizi-bizirik larrutze gertu". "... klasez klaseko martxan, egunen gurpilean deskubritu zintudan". "Ez naiz ausartuko nartzisismoa zenik esatera, baina eguzki indargeak argitzen zuen zelai berde haren erdian, elegantziaren erakustean, edergintza hutsean ari zinela iruditu zitzaidan". "Zain nengokizun". "Oin puntaz urari galdetu eta arropak erantzi zenituen". "... besoza-balik eguzkiari eskaini zenion zere gorputzaren oparia". "Brisa bihurtu izan banintz zure biluztasuna ferekatzeko!". "Ikustekoa zen, esertzean pixka bat beheratzean zitzaizularik, bizkarraren barrenean nola urreztatzen zizun eguzkiak bilo horia...!". "Zerk erakartzen ninduen gehien zuregan? Gizatasunak ala emetasunak?". "Orbel artera jaustean maite-laztanez estutu zintudan". "Edertasun eta poesiaz bete zenuen egongela zabala". "Jeloskor ote zeynden?". "Ezin zenion eutsi betazalaren pisuari eta laster sartu ginen lozaketara". "Asebetetzen ez den maitasunak ahanztura ala, lehenxeago edo geroxeago, zalamtza, larria eta etsipena ditu berekin". "Zure malkoen mezu fina jaso nuen eskuetan". "Eguzkia ez zen, orde, nire hondamen-diarengatik geratzen eta denborak aurrera jarraitzen zuen". "Haltzak ere izan dezakeela bihotzik pentsatu beharko luke, ezta?".

Azken kontsiderazio bat: prosa poetikotzat hartzen badugu ere ez dut uste bekatu handiegia egin genezakeenik.

Zaldibian, 1992 ko otsailan.

Rufino Iraola Garmendia